

Altza

«Gure memoria historikoa berreskuratu nahi dugu»

Altzako Historia Mintegiak (AHM), "Altza, hautsa kenduz" bildumako seigarren liburua aurkeztu berri du. Iñigo Landa historialari eta mintegiko kidearekin izan gara.

Sara Soria 943-357037

Zeintzuk dira Altzako Historia Mintegiaren helburuak?

AHM duela 15 urte sortu zen. Hiru dira gure helburu nagusiak: Altzaren memoria

historikoa ez galtzeko eta berreskuratzeko lan egitea, ikerketetan, beste elkarteekin elkarlana bultzatzea eta mintegiak egindako lana zabaltea.

Zein da bildumako seigarren alearen edukia?

Hainbat gairen inguruko artikuluak bildu ditugu: literatura, baserrien historia, mendia eta Altzako elkarten lana, besteak beste. Liburua osatzeko hainbat kolaboratzaile izan ditugu, hala nola, Joan Mari Irigoien idazle altzatarra, Antxon Agirre Sorondo eta Josu

«Oso kritikoak gara Auditz-Akular proiektuarekin»

Tellabide etnologoak, eta Bordazar baserriko Manuel Zapirain.

Manuel Zapirain, Ataño bertsolariaren anaia eta Bordazar baserriko semea, duela aste pare bat hil zen. Nolako zen Manuel?


Oso pertsona bizia eta presua zen. Bordazar baserriko historia ondo ezagutzen zuen eta koadernotxo batean idatzi ohi zituen bere oroitzapenak, auzoa eta auzotarrak garai batean nolakoak ziren azalduz.

Historialariak izanik eta baserri giroari ematen diozuen garrantzia aintzat hartuta, zer deritzozue Altzan azken hamarkadetan gauzatutako aldaketari?

Gu gaur egungo Altzan bizi gara. Baserrien Altza kontuan izan behar dugu, baina immigrazioa eta etorkinak ere Altzaren parte dira, eta ez diogu errealitate horri bizkarraren eman. Errealitate hori gureganatu dugu eta gaurko altzatarrekin lan egin ohi dugu. Hori dela eta, bildumako azken alean azala aldatzea erabaki dugu. Aurrekoek baserri giroa islatu ohi zuten. Azkenak, ordea, industria du ardatz.

Auditz-Akular proiektuari zer deritzozue?

Oso kritikoak gara proiektu



horrekin, ez baititu ez ondarea ez mugak errespetatzen. Ondareari dagokionez, Altzako historian garrantzitsuak izan diren hainbat baserri eraitsiko dira: Martiluneko Sius eta Mirasun, Molinao inguruko Iparragirre eta Alamo... Mugei dagokienez, berriz, Altzari dagokion Molinaoko lur-eremua Pasaia eman nahi diote. Gainera, Auditz-Akular urbanizazioa eginez gero, oso berdegune garrantzitsua galduko genuke, izan ere, dena etxer bete nahi dute. Horrez gain, industrialde berria egingo dute Molinaon. Ildo horretatik, ezin dugu ahantzi Altza herria dela. Baina Donostiako Udalak, gai honi buruz, ezikusiarrena egingen du. Ez gara udalerrria, baina Altza herria da eta hori da gure aldarrikapena.

Euskarak zer nolako egoera bizi du Altzan?

Antza, estatistika aldetik gutxi gara, baina atera ohi ditugun argitalpenetan euskarazko jatorrizko testuak dezentzera dira, beste lekuetan baino gehiago. Gainera, euskal hiztunak ez diren jarrera euskararen aldekoa da. Gurasoek seme-alabak D eremuan



Argazkian, Iñigo Landa altzatarra.